

BI MILA ETA HAMAHIRUKO ABENDUAREN HAMAZORTZIAN,
ARRATSALDEKO ZAZPIETAN, EGINDAKO BATZAR ARRUNTEKO
AGIRIA.

ETORLEAK

Alkate Lehendakaria:

FRANCISCO JAVIER ARTAECHEBARRIA ZUAZO

Jaun Zinegotziak:

EUGENIA BIDAGUREN PUJANA (MIRENE)
JUAN ANASTASIO IBAIBARRIAGA BASTERRECHEA
MARIA ROSA ONAINDIA URRIOLABEITIA
JOSE ANTONIO SARRIONAINDIA BICANDI

Falta dira justifikazioz:

MARIA JESUS BARAYAZARRA ELORRIETA
DEBORA BROVEDANI COLLEDANI

Idazkaria:

ARTURO GABIOLA URRUTIKOETXEA

=====

"MUNITIBAR-ARBATEGI-GERRIKAITZ, elizate eta uriko Udal Batzarrean, bi mila eta hamahiruko abenduaren hamazortzian, arratsaldeko zazpiak direla, bertaratutakoek ahobatez adostuta Udal Arrunteko Bilkura egiteko asmoz, Francisco Javier Artaechebarria Zuazo Alkate jaunaren Lehendakaritzapean, goian aipatutako jaun/andre Zinegotziak batu egiten dira.

Ondoren eguneko aztergaiko arazoak tratatzera jotzen da, ondoko akordua hartzen direlarik:

1.-AURREKO BATZARREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, EGOKIA BALDIN BADA, ONARPENA EGITEA.-

Idazkariak Udal Batzarrak bi mila eta hamahiruko azaroaren hogeita zazpian egindako Batzar Arrunteko akta irakurtzen du, daudenen ahobatez, onartua delarik.

2.- BENGOLARI DAGOZKIONAK.-

2.1.- LURRAZALA ESKUBIDEAREN ESPARRUA.-

Idazkariak Lurrazala eskubidea Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoari zesioaren esparrua finkatzerakoan izandako hika-mikaren berria ematen du, azkenean Udalak proposatutakoa onartu dela gaineratuz (10. poligonoko 39. eta 221. lurzatiak zesioaren esparrutik kanpo utziz, eta 5. poligonoko 284 eta 290. lurzatiak, aldiz, barruan).

Udal Batzar Osoak, bertaratutakoek aho batez erabakita, udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa baino gehiago da (abenduarien 16ko 57/2003 Legeak aldatutako Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 artikuluko ñ) atalean eskatzen den gehiengoa), zesioaren esparrua ondoko lurzatiaren eratu izanik katastroko **5. Poligonoko 284. Lur-zatia, 6. Poligonoko 257, 258., 263. eta 264. Lurzatiak eta 10. Poligonoko, 40., 41., 42. eta 43. lurzatiak; Larragan soroarena: Munitibar (Arbatzegi-Gerrikaitz)eko landa-katastroko 5. poligonoko 290. Lurzatia.**

Alkatea den Francisco Javier Artaechebarria Zuazo jauna, 15.346.462-B NAN zk. duena (edo bera legez ordezten duen pertsona), ahalmentzea dagozkion eskriturak Udalaren izenean sinatzeko eta beharrezkoak izango diren gestioak egin eta dokumentuak sinatzeko aipatutako esparruari dagokion “Derecho Superficie” delakoa Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoaren izenean inskribatzeko.

2.2.- ERAIKITAKO PARKEAREN ETA ZENTROAREN OBRA AMAIERA.-

Lea Ibarreko Udal Amankomunazgoko arkitektoaren txostena izan arte gai hau hurrengorako uztea, erabakitzen du Udalbatzak.

3.- ALKATEAREN AURREAN EGINDAKO ESKAERAK.-

Alkateak bere aurrean aurkeztutako kexak eta eskaerak batez ere umeen parkea eta plazaren garbitasunari buruzkoak izan direla azaltzen du, Learri enpresari agindu zaiola garbitzeko gaineratuz

Udalbatzar Osoak informazioa jasotzen du

4.- GILLISTEGIKO VPO ETXEBIZITZEI DAGOZKIENAK.-

Gillistegiko VPOko dependenziei dagokien superficie eskubidearen salerosketan interesatu bi gehiago dagoela

Gauzak horrela, Udalbatzak ondorengo erabaki hauek hartzen ditu.

4.1.- BUM3KO B ORUBE GAINEN ERAIKITAKO DEPENDENZIA 9-RI DAGOKION “SUPERFICIENTE” ESKUBIDEAREN SALMENTA.-

Ikusirik, 2013ko aurrekontuaren 6. kapituluan “superficiante” eskubidearen salmenta aurreikusita zegoela.

Ikusirik, Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanetarako Sailatik salmenta honi buruz luzatutako txosten aldekoa.

Ikusirik, Markinako erregistrotik ailegatutako Ohar Simpleak, BUM3ko B orube gainean eraikitakoari buruz dependenziaz dependenzia, 33 dependenzia izanik.

Ikusirik, Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoko arkitektoak 33 dependenziei buruz, banan banan, luzatutako balorazioak.

Interesatuak udal honekin izandako batzarrean azaldutakoa kontutan harturik, Udal Batzar Osoak, bertaratutakoek aho batez erabakita, udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa baino gehiago da (abenduarien 16ko 57/2003 Legeak aldatutako Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 artikuluan eskatzen den gehiengoa), ondokoa erabakitzen du:

1.- Markinako Erregistrotik ohar sinpleetan azaltzen den “dependencia nueve” delakoari (hau da, Arbatzegi-Gerrikaitzeko 1.403. zenbakidun finkari), dagokion “Superficiante” eskubidea, Aitor Lapresa Eizaguirre jaunari saltzea, 13.950,35€tan (gehi zergak, gehi eskrituratzeko gastuak).

2.- Interesatuari erabaki hau jakinaraztea, abenduaren 31 baino lehen, beronen konformitatea emateko eskatuz, epe hori igaro ondoren konformitatea jaso barik akordu hau, automatikoki balio gabetuko da.

3.- Alkateari, 15.346.462-B NAN zk. duen Francisco Javier Artaechebarria Zuazo jaunari (edo bera legez ordeztzen duen pertsonari), ahalmena ematen zaio aipatutako salmentako eskriturak Munitibar (Arbatzegi-Gerrikaitz)eko Udalaren izenean sinatzeko, baita behar diren gestioak egin eta beharrezkoa izango den dokumentazioa sinatzeko ere erabaki hau aurrera eraman dezan.

4.2.- BUM3KO B ORUBE GAINEAN ERAIKITAKO DEPENDEZIA 33-RI DAGOKION “SUPERFICIENTE” ESKUBIDEAREN SALMENTA.-

Ikusirik, 2013ko aurrekontuaren 6. kapituluan “superficiante” eskubidearen salmenta aurreikusita zegoela.

Ikusirik, Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanetarako Sailatik salmenta honi buruz luzatutako txosten aldekoa.

Ikusirik, Markinako erregistrotik ailegatutako Ohar Simpleak, BUM3ko B orube gainean eraikitakoari buruz dependenziaz dependenzia, 33 dependenzia izanik.

Ikusirik, Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoko arkitektoak 33 dependenziei buruz, banan banan, luzatutako balorazioak.

Interesatuak udal honekin izandako batzarrean azaldutakoa kontutan harturik, Udal Batzar Osoak, bertaratutakoek aho batez erabakita, udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa baino gehiago da (abenduarien 16ko 57/2003 Legeak

aldatutako Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 artikuluan eskatzen den gehiengoa), ondokoa erabakitzen du:

1.- Markinako Erregistrotik ohar sinpleetan azaltzen den “dependencia treinta y tres” delakoari (hau da, Arbatzegi-Gerrikaitzeko 1427. zenbakidun finkari), dagokion “Superficiante” eskubidea, Iñaki Belaustegui Goitiz jaunari saltzea, 14.064,79€tan (gehi zergak, gehi eskrituratzeko gastuak).

2.- Interesatuari erabaki hau jakinaraztea, abenduaren 31 baino lehen, beronen konformitatea emateko eskatuz, epe hori igaro ondoren konformitatea jaso barik akordu hau, automatikoki baliogabetuko da.

3.- Alkateari, 15.346.462-B NAN zk. duen Francisco Javier Artaechebarria Zuazo jaunari (edo bera legez ordezten duen pertsonari), ahalmena ematen zaio aipatutako salmentako eskriturak Munitibar (Arbatzegi-Gerrikaitz)eko Udalaren izenean sinatzeko, baita behar diren gestioak egin eta beharrezkoa izango den dokumentazioa sinatzeko ere erabaki hau aurrera eraman dezan.

5.- HERRIKO GARBITASUN ZERBITZUA.-

Herriko garbitasun zerbitzua dela eta, Onaindia eta Barayazarra zinegotzien, Alkatearen, eta lauron arteko batzarrean sortutako eginkizun-kuadroren berri emango da, Onaindia zinegotziak idatzitakoa.

Bestalde, Herria garbitzeko aurrekontua aurkezteko Learri enpresari agindu zaiola, azaltzen du Alkateak.

Udal Batzar Osoak gai hurrengorako uztea erabakitzen da, Udaleko eraikinak garbitzeko lan boltsa sortzearen egindako kudeaketa eta beste Udalerrri batzuek egindakoa aztertu ondoren horri buruz txostena luzatzea Idazkari-Kontuhartzaileari aginduz.

6.- UDAL HONEN AURKA IPINITAKO 185/2013 PROZEDURA ARRUNTA DELA ETA, JASOTAKO DEMANDA.-

AZTERTU da Bilboko 2. Administrazioarekiko Auzien Epaitegitik jasotako idatzia, non Munitibar Arbatzegi-Gerrikaitz udalari deia egiten zaion, 20 eguneko epean ordezkaria izendatu eta demandari erantzuteko, edo bestela, auzi-jartzailearen uzia bidegabetzat jotzeko arrazoiak ezagutarazteko.

AZTERTU da Udaleko idazkari-kontuhartzaileak luzatutako zertifikazioa. Zertifikazio honetan 2007tik hona luzatutako aktetan, dekretuetan eta kontabilitatea aztertutik, ondorengo egiaztatzen da:

- Udal honek, udaletxeko leiho batean aipatutako autoetan azaltzen den ikurrik ipintzeko akordurik ez duela hartu.
- Gastuetan ez dela inolako partidarik agertzen ikurra hori erosteko, ezta ipintzeko ere.

GERTAERA.- Udaltza honek bere ondare eta eskubideak defendatzeko beharrezko legeko ekintzak burutu behar ditu.

GERTAERA.- Udaltzaren osoko bilkurari dagokio, oro har, bere ondare eta eskubideak defendatzeko beharrezko legeko eta administrazioeko ekintzak burutzea.

Udaltzak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21, 22 eta 68.1 artikulak, eta hauekin araudi baterakorra, kontutan harturik, denen ahobatez, ondorengo erabakitzen du:

LEHENENGOA: Bilboko 2. Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean jarraitzen ari den 2013/185 zenbakidun prozedura arruntan; ordezkari juridikorik ez izendatzea, Udaltza honek kontentzioso honek sortuko dituen gastuei aurre egiteko dirurik ez daukalako.

BIGARRENA: Bilboko 2. Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean Auzi-jartzailearen uzia bidgabatzat jotzeko arrazoiak ezagutaraztea, prozedimendu hau artxibatze eskatuz. Izan ere, akordu honi lotzen zaion zertifikazioan ondorengo egiaztatzen delako.

- Demandan errekurritzen den akordurik ez dela egon.
- Demandan azaltzen den gasturik ez dela egon, administratibo ekintzaren ilegalizazioa sortu barik geratuz..

HIRUGARRENA: Alkateari, 15.346.462-B NAN zk. duen Francisco Javier Artaechebarria Zuazo jaunari (edo bera legez ordeztzen duen pertsonari) ahalmena ematen zaio Munitibar (Arbatzegi-Gerrikaitz)eko Udaltza izenean behar den dokumentazioa sinatu eta behar diren gestioak egiteko erabaki hau aurrera eramanez.

7.- “PROYECTO DE EFICIENCIA ENERGÉTICA MEDIANTE ADAPTACIÓN DE ALUMBRADO PÚBLICO A LA TECNOLOGÍA LED EN EL T.M. DE MUNITIBAR” PROIEKTUARI DAGOZKION LAN ZERTIFIKAZIOAK, LEARRI, S:A:, ENPRESAK AURKEZTUTAKOAK.-

Ikusirik, “Proyecto de eficiencia energética mediante adaptación de alumbrado público a la tecnología led en el T.M. de Munitibar” proiektua, beronen zenbatekoa **108.789,43** eurokoa delarik (bez barne).

Ikusirik, 2013 urteko tokiko ekintza planak ezartzeko diru laguntzen programa (TOKIKO AGENDA 21) arautzen duen 2012ko abenduaren 18ko 183/2012 Foru Dekretuan oinarrituz Diputazioak emandako dirulaguntza, beronen zenbatekoa 80.000 eurokoa izanik.

Ikusirik, “Proyecto de eficiencia energética mediante adaptación de alumbrado público a la tecnología led en el T.M. de Munitibar” Proiektuari dagozkion lanak Learri enpresaren bidez burutu direla.

Ikusirik, “Proyecto de eficiencia energética mediante adaptación de alumbrado público a la tecnología led en el T.M. de Munitibar” Proiektuari dagozkion lanak egiteagatik Learri enpresak aurkeztutako lehenengo zertifikazioa, beronen zenbatekoa: HAMASEI

MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST EURO ETA HIRUROGEITA HIRU ZENTIMOKOA izanik (16.295,63 bez barne).

Ikusirik, “Proyecto de eficiencia energética mediante adaptación de alumbrado público a la tecnología led en el T.M. de Munitibar” Proiektuari dagozkion lanak egiteagatik Learri enpresak aurkeztutako bigarren zertifikazioa, beronen zenbatekoa: BI MILA BEDERATZIEHUN ETA HAMAR EURO ETA HAMAZORTZI ZENTIMOKOA izanik (2.910,18€, bez barne).

Ikusirik Learri enpresak aurkeztutako zertifikazio likidazioa, beronen zenbatekoa: EHUN ETA ZORTZI MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI EURO ETA BERROGEITA HIRU ZENTIMOKOA (108.789,43€) delarik (BEZ barne). Zertifikazio horri dagokion faktura, 1. eta bigarrena deskontatua. 89.583,62€koa izanik (bez barne)

Udal Batzar Osoak, denen ahobatez ondorengoa erabakitzen du:

- 1.- Aipatutako zertifikazioak eta fakturak onartzea.
- 2.- Erabaki hau 2013 urteko tokiko ekintza planak ezartzeko diru laguntzen programa (TOKIKO AGENDA 21) arautzen duen 2012ko abenduaren 18ko 183/2012 Foru Dekretuan oinarrituz Udal honi emandako dirulaguntzaren ordainketa lortzeko asmoz.

8.- DONE JAKUE BIDEARI DAGOZKIONAK.-

Done Jakue bidearen kudeaketa (Eusko Jaurlaritzarako) egiten ari den enpresakoekin, herriko tabernakoekin eta Learrikoekin batzarra urtarrila arte atzeratu denez, Udalbatzak, denen ahobatez, gai hau hurrengorako uztea erabakitzen du.

9.- VODAFONE ENPRESAK AURKEZTUTAKO ESKAINTZA.-

Udal honek ordaintzen dituen telefonia zerbitzu guztiak direla eta, Vodafone enpresak (Zaitel enpresaren bidez) aurkeztutako eskaintzaren berri ematen da.

Bestalde, Movistarrek orain arte ematen ari den zerbitzua, beste enpresarekin kontratatzeagatik, penaltaterik ez duela kobratuko, azaltzen da.

Udalbatzak, komunikazioen gastuak murrizteko helburu, bertaratutakoek aho batez erabakita, udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa baino gehiago da (abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatutako Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 artikuluan eskatzen den gehiengoa), ondokoa erabakitzen du:

1.- Vodafone enpresak (Zaitel enpresaren bidez) aurkeztutako eskaintza orokorra onartzea, Vodafone enpresari 250 eurotan (gehi bez, hileko) uadalaren kargua diren telefonia zerbitzuak emanez.

Orain dauden zerbitzuei idazkaritzarako mobilarena gehituko zaio.

2.- Udaleko igogailuari dagokion larrialdiko linea (946164051), printzipioz Movistarekin mantenduz.

3.- Alkateari, 15.346.462-B NAN zk. duen Francisco Javier Artachebarria Zuazo jaunari (edo bera legez ordezten duen pertsonari), ahalmena ematen zaio aipatutako zerbitzuei dagozkien kontratuak Munitibar (Arbatzegi-Gerrikaitz)eko Udalaren izenean sinatzeko, baita behar diren gestioak egin eta beharrezkoa izango den dokumentazioa sinatzeko ere erabaki hau aurrera eraman dezan.

10.- EUSKERAREN ERABILERA PLANA.-

Alkateak V. Plangintzaldirako euskara-planaren berri ematen du.

Bestalde, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak V. Plangintzaldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren proposamenari txosten aldekoa eman diola azaltzen du, Alkateak.

Udal Batzar Osoak, denen ahobatez, (udalbatzarkideen gehiengo absolutuaren aldeko botoa suposatzen duelarik), ondorengoa erabakitzen du:

1.- V. Plangintzaldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartzea.

2.- Onarpen honi dagokion iragarkia BAOn eta iragarki taulan argitaratzea.

3.- Alkateari, 15.346.462-B NAN zk. duen Francisco Javier Artachebarria Zuazo jaunari (edo bera legez ordezten duen pertsonari), ahalmena ematen zaio behar diren gestioak egin eta beharrezkoa izango den dokumentazioa sinatzeko udal honen izenean erabaki hau aurrera eraman dezan.

4.- Erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzara bidaltzea.

11.- DESFIBRILADOREARI DAGOZKIONAK

Alkateak azaltzen du 2011ko urritik udaletxe beheko aldean desfibriladore bat ipinita dagoela, orain arte gailu horren mantenimendua inork eman barik. Horrexegatik, Udal honek inoiz ez du ontzat hartu Parfip enpresak handik aurrera fakturak luzatzeko argudiatzen duen kontratua.

B-Safe enpresak Udal honekin negoziaketan hasi zela, azaltzen du idazkariak, azken proposamena ondorengoa dela gaineratuz:

- Desfibriladorearen mantenimendua B-Safek berak emango du

- Arrendamendu kontratuaren kostua 130euro/hileko izango da (GRENKE finantzierarekin sinatuz).

- Parfipekiko auziaren konponketa bere kargura hartuko du, guri ezer ez erreklamatu.

Udal Batzar Osoak Orain bertaratutakoek aho batez erabakita, udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa baino gehiago da (abenduarien 16ko 57/2003 Legeak aldatutako Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 artikuluan eskatzen den gehiengo), ondokoa erabakitzen du:

Lehenengoa. B-SAFE enpresarekin eta bere finantzierarekin (GRENKE), desfibriladorearen arrendamendu kontratua sinatzea, hirurogei hilabeterako, kontratuaren prezioa 130€/hileko izanik.

Bigarrena. Akordu hau, eta ondorioz, sinatuko den kontratua automatikoki balio gabetuko da udal honek desfibriladorea, bere onean, erabiltzeko aukera galtzen badu.

Hirugarrena. Alkateari, 15.346.462-B NAN zk. duen Francisco Javier Artachebarria Zuazo jaunari (edo bera legez ordeztzen duen pertsonari), ahalmena ematen zaio aipatutako arrendamendu kontratua Munitibar (Arbatzegi-Gerrikaitz)eko Udalaren izenean sinatzeko, baita behar diren gestioak egin eta beharrezkoa izango den dokumentazioa sinatzeko ere erabaki hau aurrera eraman dezan.

12.- AGINDUTAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA.-

Ez dago dekreturik.

13.- GALDE-ERANTZUNAK.-

- Onaindia zinegotziak Etxetxu baserriaren aldean Done Jakue bidearen ibilbideari buruz galdetzen du.
- Alkateak plazako iturri gainean mastil bi ipintzeko proposatzen du. Idakariak, aurtengo aurrekontuetan hori burutzeko krediturik ez dagoela azaltzen du. Bidaguren zinegotziak aipatutako mastilak ipintzen badira ondo ipintzea eskatzen du (inguruan errespetatuz).
- Onaindia eta Bidaguren zinegotziak plazako jardinerak ttukun ipintzeko alternatibak aztertzea eskatzen dute.
- Onaindi zinegotziak Udalaguntza 2013 dirulaguntzaren bidez azken batzorde eskolarrean azaldutako beharrei dagozkien lanak burutzeko poposatzen du. Alkateak idazkariari agintzen zaio Learri enpresakoei esateko eskolako zuzendariarekin egon ondoren egoki den aurrekontua aurkezteko.

AZTERGAIK KANPO

Batzar Osoak, ROFeko 83 artikulua agintzen duenaren arabera, aho batez alde zuzenetik larriak bailiran azalduz, ondoko gai hauek tratatzea erabakitzen du:

A).- 1. KREDITU TRANSFERENTZIA ESPEDIENTEAREN ONESPENA.-

Munitibarko Udaleko 2013ko Aurrekontuaren barnean gastuen aurrekontu partiden arteko kredituak aldatzeko izapidetzen den espedienteak aztertu ditugu.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako proposamena eta txostenak, ziurtagiriak eta agiri horren gainerako jarduketak aztertu ondoren, kontuan hartuz adierazitako aldaketa Aurrekontuaren garapena arintzeko mesedegarria izango dela eta espediente horren izapideketak aplikagarria zaizkion legeri egokitzen zaiela, Udal Osoko Bilkura honek **bidezkoztat jo du 10.000 Eurotako zenbateko 1. Kreditu Transferentzien espedientea.**

B) AURREKO URTEETAKO KREDITU BAJEN PROPOSAMENA.-

Alkateak, Idazkari-Kontuhartzaileak horri buruz egindako txostena azaldu eta gero, aurreko urteetako kreditutik sarrerei dagokien **2.083,87€** zenbateko kredituaren baja eta gastuei dagokien **1.324,67€** zenbateko kredituaren baja emateko proposatzen du.

Udalbatzak, ahobatez, aurreko urteetako kreditu baje lehenengo espedientea onartzea erabakitzen du, sarrerei dagokien **2.083,87€** zenbateko kredituaren baja eta gastuei dagokien **1.324,67€** zenbateko kredituaren baja emanaz.

C) EKILORE EUSKARA ZERBITZUA, S.L., ENPRESAK AURKEZTUTAKO FAKTURA.-

Alkateak Ekilore euskara zerbitzua, S.L., enpresak 2013. urtean zehar EBPN kudeatzeagatik aurkeztutako fakturaren berri ematen du, beronen zenbatekoa 9.064,75 eurokoa izanik (bez barne).

Udal Batzar Osoak denon ahobatez aipatutako faktura onartu eta ordaintzea erabakitzen du.

Eta beste arazorik tratatzeko ez dagoenez, Udal Batzarrari amaiera ematen dio Alkate Jaunak, iluntzeko bederatzia direlarik, eta erabakitakoa jasota geratzeko agiri hau egiten dut".